

ERRIALDE GUZTIEN EDESTIA INDITARRAK (K.A. 3000-1500)

Iparraldeko merkatariaiek euren itxas-ontzietan, Persia'ko itxasoa-zear, lenengoz Indi'ra eldu ziranean arritu-ta geratu ziran India zabala ta luzea eta ango biztanletza ugaria ikusi ebezanean. Ganjes ibairaino eltzen zan jakintza-leku eder ori.

Aspalditik ziran nekazari trebeak eta kobrezko tresnak eukezan lurra lantzeko.

Euren urietan mutillak ziran zoi errez etxeak egiten. Buztin-lana arrigarriro moldatzen eben eta koloredun marrazki ederrak marrazten ebezan. Gurpil biko gurdi astunak eukezan eta barazkiak eta mota guztietako lurraren frutuak azokara eroaten ekintzailleak ziran.

An egiten ziran azoketan guztitariko eder-lanak be aurkitu eikezan, urre ta zidarrezko tresneria be ugari. Erritar xumeak ezin eben alakorik erosi, karuak ziralako eta sendiak larri ebiltzan euren bear-izanai erantzun-ezi-ñik, eta ardurarik larriena zan eurentzak erregeari zor jakona lurretik ateratea.

Basapizti asko egoan inguruetan eta estu ibiltzen ziran rinozeranteai, katamotzai eta elefanteai aurre egitera-koan.

Ipuin eta abesti zarrak kontatzen eta abesten zaleak ziran, eta ori egiten eben euren arbasoengandik, ekiena zabaltzeko.

Eiztari trebeak ziran, egoaldeko basatiak bai beintzat, baiña gogo-lantzerako eta ederti-lanetarako asti larre-gi aurkitu barik.

Jainkoak, gizonezkoak naiz emakumezkoak, asko gurtzen ebezan eta euren omenez sarritan ikusten zira jaiak ospatzen. Jainkoen irudiak egitean, Tigris eta Eufrates-inguruan ikusiak ziran eta jaun-gurtza orregaz batera euren arteko artuemonak eta joan-etorriak beroak ziran.

Idazten ez ziran ain onak. Arrietan itzi eukuezan idaz ezaugarri batzuk, baiña oraingoz iñor ez da eldu ezaugarri orreik euki daikeen adierazpena ulertzeraz. Ez daukagu besterik geure ezintasuna agertu-berra baiño.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua

GEURE JAIOTETSEA

Tenter-barrengo zelai-ertzean,
base-inguruan baketsu.
Errekatxu bi oiñetan garden.
Artotza ta Errekatxu.
Aize garbia osasungarri
arnasarentzat gozatsu.
Txori-kantuen eresi gozo
entzumenentzat alaitsu.

Igali-leraz uda barrian,
etsondoak zoragarri.
Badats uda ta udazkeneko
igali onak ugari.
Ortuariak janari eder,
solokoak ernugarri:
Etse-bazterra solo ta landa,
bizi-leku zoragarri.

Euzki-begitan, basetse zuri,
Mendietako Agerre.
Etxe-inguruko edertasuna
bazter, landa eta larre.

Toki obarik ezin daiteke
aurkitu iñun be iñunbere.
Txakur zintzoa etsea zaintzen,
txar daitezenen asarre.

Neba-arreba ta gurasoakaz
maitasunezko bizitza.
Siñismenezko bake-giroan
zorionezko egoitza.
Jaio eta asi giñan etseak
ba-ditu berein gomuta:
Beti izango da, gure gogoan,
Agerre'ren maitekuntza

Joan ziranak zeruan dira,
zoriontasun betean;
poza damozku arein gomutak,
gogo eta biotzean.
Bake ta poza gure artean,
beitez zorion betean;
Beti iraungo dau maitetasunak
sendiko batasunean.

Aurraitz'ek